

CUENCA, R., NUCINKIS, N. eta ZAVALA, V. (biltz.) (2007)

Nuevos maestros para América Latina. Madril: Morata.

Hizkuntza eta kultura aniztasuna zentzu positiboan hartzen duten, eta irakasleriaren formakuntzan murgildurik dauden, profesionalentzat eginda dago liburu hau.

Lan-bilduma bat da, hezkuntza erreformak martxan jarriak dituzten Hego Ameriketako zenbait herrialdetan irakasleriaren formakuntzan egingakoaren balantzea egiten duena. *Hego Ameriketako heziketa, kultura eta hizkuntza* bildumaren barruan txertatzen den lana da.

Irakasleak gelan betetzen duen eginkizuna aitortzen delarik, euren formakuntzaren egoera deskribatzen da, esperientzia eta berrikuntza zenbait aurkeztuz. Horien testuinguruan, herri xeheak zein Ameriketako herri indigenek eskuratu nahi duten duintasunezko berdintasuna lortzen lagunduko duen zuzentasunean oinarritutako kalitatezko heziketa ziurtatzeko onartu behar diren erronkak azaltzen ditu liburuak.

Erantzun behar den lehenengoetako eskabidea, irakasleriaren formakuntza eta maisutzaren garapen profesionala lotzea da. Ildo horretatik, liburuaren lehenengo zatian plazaratuko den erronka zera izango da: hezkuntza politiken ildoan eraikitza prozesuetan parte hartuko duten profesionalak formatzea. Ez, soilik, besteak diseinaturiko politikak martxan jarriko dituzten profesionalak, hauek elkarrekin diseinatuko dituzten ekintzaileak izango direnak, baizik. Horretarako, ezinbestean, ezagutzaren partelazioaren amaitu beharko da eta, horren ordez, ezagutzaren produkzioaren inguruan egun dauden eskaera berriei erantzun dion, eta zientziari begirada berria emango dion edukien integrazio lanean hezi beharko dira.

Beste erronka garrantzitsua, populazio elebidunei erantzun beharra da. Liburuaren bigarren zatian heltzen zaio heziketa elebidunaren eskaerari. Bertan, Kulturarteko Heziketa Elebidunaren eredia (Educación Intercultural Bilingüe —EIB—, gisa ezagutzen dena) garatu izan duten hainbat herrialdetako (Txile, Bolibia, Peru, Mexiko) esperientzia azaltzen zaigu. Herrialdeen arteko irakurketa konparatuak, bere aldetik, zera ikustarazten digu: Egon badaudela ezaguarri komunak, herrialde horietan EIB-ren alde nahiko oinarri legal zabala ezarri den heinean. Baina, bada desberdintasun nabari ugari ere, kontzeptuak duen argitasun faltagatik, edo indigenen parte-hartze neurriagatik, eredia garatzeko garaian. Zonaldean EIB ezarri zenetik 30 urte igaro ondoren, beharrezkoa ikusten dute berkontzeptualizatzea indigena dena eta ez den eta, baita, Kulturarteko Heziketa Elebidunaren eredia bera ere. EIB-ereduari indigena kutsua kentzea aldarrikatzen dute egileek, kulturarteko heziketak —kulturaniztasunaren irakurketa kritikoak—, hezkuntza sistema osoa zeharka dezan. Are gehiago, kulturaniztasunaren eta hizkuntza-aniztasunaren gaiak, EIB-ren mugak gaintitu eta, populazio osoa hartzen duen hezkuntza sistemara hedatu beharra aldarrikatzen dute, baita goi mailako irakaskuntzara ere.

Liburu hau irakasleriaren formakuntzan murgilduta dagoen profesional orori zuzenduta dago, ez populazio indigenei begira bereziki lan egiten dutenei soilik. Abiapuntua bai, testuinguru elebidunetan eta kulturarteko programetan diharduten irakasleen egoera da. Baina, muga horiek gaintuzten dituzte, izan ere, herri indigenekin eta indigenetan egindako lan pedagogikoari dagozkion analisi-kategoriak (fenomeno historiko, sozial eta hizkuntza mailakoen analisi-kategoriak) baliagarritzat hartzen baitira edozein hezkuntza sistemarako. Esparru berezian eraikitako ekintza eta ikerkuntza pedagogikorako ildo honek ahalbidetu du edozein hausnarketa pedagogiko aberasten duten hainbat tresna garatzea: bereizketarako gaitasuna, eta hezi-gaiaren munduaren konplexutasunarekiko sentiberatasuna, besteak beste.

Ana Eizagirre Sagardia

WRIGLEY, T. (2007)

Escuelas para la esperanza. Una nueva agenda para la renovación. Madril: Morata.

Eskolaren eragingarritasuna eta bikaintasuna goraipatzen duen mugimenduaren kritika zorrotza da liburu hau. Bere kritikarako abiapuntua Ingalaterra da, bertan —1990. urtetik aurrera frogaren eremua izanik—, gobernuaren erabateko babesarekin gero eta argiago ezartzen ari den Eskola-Hobekuntzaren eredu neoliberalak. Izan ere, nagusitzen ari den eskolaren erreformaren norabide eta bertsio nagusia, oinarri estatistikoa duen Eskola-

Eragingarritasunaren bertsioa da, eta Eskola-Hobekuntzaren paradigma horri jarraituz bideratu dira azken urteetako gobernu-politikak. Horiek dira liburu honek kritikatzeko dituenak. Egileak azalaraziko duenez, politika horien bitartez ez da lortu, langileen seme-alaben artean eta gutxiengo etnikoen artean, ez hezkuntza ez eta kualifikazioak ere hobetzerik. Lortu den gauza bakarra, irakaskuntzaren pribatizazioa, eta bokazioari begira eginiko curriculum bultzatzea izan da. Ildo beretik, gobernu-agentziek goiti-beherako presioa eta bijilantzia areagotu dute, irakasleriaren motibazioa eta parte-hartzea ahulduz. Heziketa humanista baztertu, eta «giza kapitala» sortzeko funtzio soila izan-go duen hezkuntza sistema behar du kapitalismo neoliberalak, eta hori da Ingalaterra zein Europako beste herrialdeetako gobernuak bultzatzen ari direna, nazioarteko finantza-agentziek marrazturiko norabideei jarraikiz. Eredu honetan, esango digu egileak, hiritartasun aktiboa, inklusioa, hezkuntzaren helburuak eta justizia soziala bezalako gaiak alboratuak geratzen dira.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, heziketaren norabide berria hartu beharra aldarrikatzen du egileak. Ez du zalantzan jartzen hobetu daitekeenik, ezta ere hobetu behar denik. Aitzitik, eskolaren hobekuntza maisu-maistren profesionaltasunari dagokion ezaugarria dela azpimarratzen du, eskola hobeaz eta bizitza hobeaz duten itxaropenaren adierazle baita, etorkizunarekin duten konpromizutik sortua. Irakaskuntza, derrigorrez, hiritartasun demokratikoarekin, pentsamendu kritikoarekin, sormenarekin eta komunitatearekin konprometitua ikusten du. Ildo horretatik, Curriculum, ikaskuntza, intelijentzia, komunitateko bizitza, berdintasuna, eta inklusioaren inguruko ikerketa anitzetan oinarritzen delarik, eskola erakunde demokratikoa eta itxaropentsua egiten lagun diezaguketen ikuspegi eta proposamen berriak eskaintzen dizkigu. Berak, bai praktikari bai teoriari norabide berria emateko, *itxaropenerako eskolak* proposatzen dizkigu; itxaropena eskola-hobekuntzarako abiaburu gidari gisa, behar eta aukera sozial eta materialen ezagutza osotik sortua, eta gizarte-testuinguru zehatzetan kokaturik planteatzen den hezkuntza zein politika mailako erronka gisa ulertua.

Liburu hau teorikoa da. Izan ere, egungo politikari eta berezkoz hartzen diren praktikei erantzun teorikoa eman nahi baitie, eurekiko egun dagoen erresistentzia indartzeko. Aldi berean, praktikoa da ere. Kritika zorrotzarekin batera, praktika mailako adibideak, eta esku hartzeko proposamenak eskaintzen baitizkigu.

Liburua bost zatitan biltzen diren hamar atalez osatua dago. Lehenengo zatian, *Kritikak* izenekoan, egungo ortodoxiaren atzean dauden abiaburuak jartzen ditu zalantzan: batetik, eskolen eragingarritasuna identifikatzeko korrelazio estatistikoa erabiltzen duen ikerketa eredu. Bestetik, eskola-eragingarritasunaren oinarri ideologikoetan babesten den Eskola-Hobekuntzaren eredu nagusia, eredu honek demokraziaren aurka dakartzan ondorioak azalaraziz. Ondorengo zatian, *Dilemak* deiturikoan, eskolaren

hobekuntza aztertzen da, honek eskolako kultura eta egiturekin duen erlazioan. Konpromizua duen profesionalarengan eraikitako garapen-kultura aldarrikatzen da, konfiantza faltan eraikitako kontuak eskatzea bultzatzen duen ereduaren aurrean. Hirugarren zatian, *Ikaskuntza* deiturikoan, eskolaren hobekuntzaz ddiharduten argitalpenetan aintzat hartu ez diren arazoengatik inguruko eztabaida irekitzen da: norbanakoaren gaitasunaz —«intelligentsiaz»—, ulertzen dugunaren atzean dauden usteak, curriculum ezarriaren zurruntasuna, irakaskuntza zuzenean oinarrituriko transmisioa, hiritartasunerako heziketaren eta eskolaren hobekuntzaren artean dauden erlazioak, etab. Laugarren zatian, *Komunitateak* izenekoa, eskolen eta euren inguruneen arteko erlazio konplexuak aztertzen dira. Eskolek eskaintzen duten gizarte-esperientzia aztertzen da, gurasoak eskolan inplikatzeko eta komunitate mailako ikaskuntza bideratzeko eskolek duten potentziala analizatuz. Halaber, Eskola-Hobekuntzarako korrante nagusiaren inguruko argitalpenetan ere ahaztu den gizarte-justiziaren inguruko eztabaida plazaratzen da. Azken zatian, *Etorkizunak* deiturikoan, eskolaren hobekuntzarako norabide berriak azpimarratzen ditu Wrigley-k, gizarte eta teknologia mailako aldaketak kontuan hartuko dituztenak, ikaskuntza eta irakaskuntzaren interpretazioen garapena bultzatuko dutenak, eta gizarte-justizia eta giza eskubideen etikaren gainean eraikiko diren norabideak.

Liburu hau oso da interesgarria, eta gomendagarria, Ingalaterran legez, gure herrian gero eta indar handiagoz ezartzen ari den Hobekuntza eta kalitatean oinarrituriko irakaskuntza ereduaren aurrean ikuspegi autonomo eta kritikoa eraiki nahi duen hezitzaile ororentzat. Baita ere, zergatik ez, itsu-itsuan, inertziari jarraituz beharbada, eredia irentsi eta irentsarazi nahi diguten politikari eta gestio-gizon/emakume ororentzat.

Ana Eizagirre Sagardia

MEDRANO, C. (koord.), AGILAR, M. A., AIERBE, A., CÓRDOBA, A. eta CORTÉS, A. (2007)

Las historias de vida. Implicaciones educativas. Buenos Aires: Alfagrama.

Liburu honen ardatz nagusia ikerketa baten inguruan datza. Ikerlan honi esker egileek helduen garapen pertsonalaren alderdi nagusiak aztertzea lortu dute bi arlori dagokionez: bizi-ibilbidea eta familia. Liburu honean egileek erabili duten metodologia, ikerketaren ezaugarriak eta lortutako emaitzak aurkezten dituzte.

Hasierako kapituluetan hausnarketa sakon bat egiten dute autoreek erabili duten metodologia narratiboari buruz. Horren oinarriak aurkezteaz gain, metodologia narratiboak hezkuntza ikerkuntzan eduki ditzakeen

onurak eta mugak azpimarratzen dituzte. Zehatz-mehatz, liburuari izena ematen dion bizi-istorioaren teknika aurkezten da: elkarrizketatuak izan direnak beraien bizitzaren ibilbidea kontatzen dute eta horren transkripzioa abiapuntu bezala hartzen da analisi kualitatiboak zein kuantitatiboak egiteko eta ondorioetara iristeko. Ikerketan osagarri gisa erabili diren beste teknika batzuk ere jasotzen du liburuak.

Ikerketa-gaia testuinguru sozial desberdinetan aurrera eraman denez liburuan testuinguru horien ezaugarri sozioekonomikoak eta politikoak jasotzen dira. Autoren esanetan bizi-ibilbidean testuinguruaren arabera desberdintasunak eman direnetz aztertzeko funtsezkoa da errealitate soziala ezagutzea.

Liburuaren azken partean ikerketatik ondorioztatu daitezken emaitzak jasotzen dira lehen aipatutako bi arlori dagokionean (bizitza-ibilbidea eta familia). Bosgarren kapituluan, bizi-ibilbidea aldatzen dituzten faktoreei buruz hausnartzen da eta ondoko galderei erantzuten zaie: Ematen al dira aldaketa garrantzitsuak helduaroan? Ematekotan, aurreikusi ditzakegu zeintzuk diren helduaroaren aldaketak? Zeintzuk dira helduaroaren unerik aipagarrienak? Desberdinak al dira une hauek aldagai batzuen arabera (sexua, adina...)? Nola egokitzen gara gertaera berriei? Zer eragin daukate zenbait gertaerek gure bizi-ibilbidean?.

Azken kapituluan, berriz, agerian gelditzen da helduaroan testuinguru familiarak duen eragina, nahiz eta denboraren poderioz zenbait faktore aldatzen joan diren: familiaren ideia-eboluzioa, norberaren familiaren kontzeptua, familiarekiko asebetetze maila... eta abar.

Lantzen den gaiagatik (bizitzaren alderdiak) eta idazkeragatik liburu hau irakurtzeko atsegina egingo zaio edonori, baina azpimarratu behar dugu bereziki dagoela zuzenduta irakasle eta ikasle unibertsitarioentzat eta soziologia, psikologia edota hezkuntzako profesionalentzat zeren eta liburuak adibide garbi bat aurkezten baitu bizi-istorioen teknika erabileraz eta ikerketaren metodologia narratiboaz.

Arkaitz Lareki

GONZÁLEZ GARCÍA, F.M. (2008).

El mapa conceptual y el diagrama V. Recursos para la Enseñanza Superior en el siglo XXI. Madrid: Narcea.

Azkeneko hamarkadetan, giza-ikaskuntzaren ulermenean aurrerapen handiak eman dira. Aurrerapen horiek aukera berriak Gonzalez irakaslearen liburuak, aurrerapen hauen aurkezpen bikaina eskaintzen du. eskaintzen dituzte unibertsitateetan ematen den irakaskintza hobetzeko.

Sortzen ari den testuinguru berrian (Ezagutzaren Gizartea, Kalitatearen kultura, Goi-Hezkuntzaren Europar Eremua) irakastea, ikasleak bere ezagutza eraikitzen gai izateko behar diren baldintzak lortzearekin parekatzen da., alegia, era esanguratsuan ikas dezan.

Liburu honen kontzeptu giltzarria, memorian oinarritzen den ikaskuntza eta ikaskuntza esanguratsuaren artean egiten duen desberdintasuna da. Egileak, kontzeptu-aldaketetara iristeko ikaskuntza esanguratsua zein garrantzitsua den azaltzen du. Halaber, ikaskuntza esanguratsua errazteko «Kontzeptu-Mapa» eta «V Diagrama» nola erabili daitezkeen erakusten du.

Beste atal batean, ezagutzaren adierazpenerako oso tresna ahaltsua den «Cmap Tools» izeneko informatika-programa nola erabili daitekeen hezkuntzan eta beste eremuetan azaltzen du.

Azkenik, irakaskuntzan «Kontzeptu-Mapak» eta «V Diagramak» nola erabili daitezkeen aurkezten du, horretarako, unibertsitateko irakasleek burututako ezagutza-ereduak aurkeztuz.

K. Santiago

JASOTAKO LIBURUAK

KNAPCZYK, D. (2008)

Guía de autodisciplina. Cómo transformar los problemas de conducta en objetivos de autodisciplina. Madril: Narcea.

SANCHES ROSSINI, M.^a A. (2008)

Educar es creer en la persona. Madril: Narcea.

CUADRADO ESCLAPEZ, T. (2008)

La enseñanza que no se ve. Educación informal en el siglo XXI. Madril: Narcea.